

## **ANTZEZLANA: SEKRETU PROFESIONALA**

### **PERTSONAIAK:**

**ILARGI:** 26 urteko neska gaztea. Kanpoan ikasketak egin ondoren, bere etxera bueltatu da, Lezora. Aske sentitzen da, baina bere egoera honen berri norbaiti kontatu beharra sentitzen du.

**OLATZ:** 45 urte. Lezon jaio eta bertan tabernari lanbidea duen emakumea. Umore onekoa, inoiz aurpegi txarra jartzen ez duen horietakoa. Beti irribarretsu eta burlati. Bezeroak entzuten dakien horietakoa.

### **SINOPSIA:**

Madrilera ikasketak egitera joan ondoren, Lezora itzulia da ILARGI. Lezon jada ez du bere tokia aurkitzen, bai ordea OLATZEN kafetegian. Bertan ez da inorekin erlazionatzen, kafesnea hartu, egunkaria irakurri eta askoz gehiago esan gabe alde egiten duen horietakoa da. Badu ordea, norbaiti kontatu beharreko sekretua. Biktima sentitzen da, baina aldi berean askatasuna lortu duela sentitzen du. OLATZEK urteak daramatza mostradore atzean, tabernari lana gustuko du, baita honek dakarren psikologo lana ere. Tabernariaren profesionaltasunak ILARGIren konfiantza irabaziko du eta bere sekretua kontatzera ausartuko da. OLATZEK sekretu profesionala gorde beharko du entzundakoaren aurrean.

### **ESPAZIO ESZENIKOA:**

Lezoko taberna bateko barra.

## SEKRETU PROFESIONALA

**ILARGI:** Kafesne bat, mesedez.

**OLATZ:** Gaur Josu aurreratu zaizu. Egunkaria kanpoko mahaira eraman du.

**ILARGI:** Berdin zaio. Ez daukat presarik.

**OLATZ:** Begira! (*ondoko banketa seinalatuz*) Banketa behintzat libre daukazu, eserita itxaronaldia errazago egingo zaizu.

(*kafesnea zerbitzatuz*)

**ILARGI:** Itxaronaldia? Ni ez nago inoren zain. (*Zerbitzariari aurpegira begiratu gabe*).

**OLATZ:** Egunkariagatik ari nintzen. Badakit kafesnea lasai hartzen duzula, eta baita egunkariaren konpainia gustuko duzula ere ; edo behintzat burua bertan ezkututzen duzula zure ile luzearen artean kafesnea hartzen duzun bitartean.

(*Erantzunik ez. ILARGIk kafesnea hartu eta azukrea botako dio, koilaratxoarekin bueltak emanaz.*)

Ez zara hemengoa, ezta?

**ILARGI:** Bai, goiko Maritxuren alaba naiz.

**OLATZ:** Goian bizi zen Maritxurena? Ilargi zara? Urteak zu ikusi gabe? Madrilera joan zinen ikasketak egitera, ezta?

**ILARGI:** Bai, hilabete batzuk daramatzat hemen.

(*OLATZEK musika aparragailuan Izaroren “ Paris ” jarriko du. ILARGIk kafesnea utzi eta hatz lodiko azazkala hortz tartean sartuko du hozkatuz. )*

**ILARGI:** (*Olatzi begirada zuzenean*) Zu ere biktima zara.

**OLATZ:** Biktima? Zeren biktima?

**ILARGI:** Ez zara konturatzen? Edo ez duzu konturatu nahi? Gizonak ondo ezagutzen ditut.

**OLATZ:** Baita neuk ere. Ofizio honetan kafesneak eta pintxoak zerbitzatzea errazena da, baina benetan karrera bat da ofizio hau, psikologoak gara.

**ILARGI:** Badakit bai zertaz ari zaren.

**OLATZ:** Tabernan eskarmentua duzula diozu?

**ILARGI:** Ez.

**OLATZ:** Orduan ez duzu piperrik ulertzen. Hemendik dena desberdin ikusten da.

**ILARGI:** Baina badakit zer den biktima izatea, errudun egin nahi gaituzte.

**OLATZ:** Ez, emakumea. Barraren alde honetan nik dut agintea, zerbitzatzen dut, aurpegi ona ipintzen dut, baina badakit txakur aurpegia ere ipintzen.

*(ILARGIk burua makurtu eta ez du txintik esango. OLATZek beste bezero bat atendituko du.)*

**ILARGI:** Ez zara konturatzen? Edo ez duzu konturatu nahi? Pertsonak ondo ezagutzen ditudala esan dizut.

**OLATZ:** Neuk ere bai. Ikusten? Zeuk ere taberna hau aukeratu duzu, psikologo kontsulta apropos moduan.

**ILARGI:** Bai, zera. Aurrean dudan lehenari nire kontuak kontatzen dizkion horietakoa naizela uste duzu? Zuk dena entzun eta txintik ere esan ez? Barraren atzean ez, baina entzuten badakit, eta entzuteko beharra antzeman dut, nire lana ere bada.

**OLATZ:** Aiba! Orduan zer? Tximekin aurpegia tapatu eta belarriak beti prest dituen kuxkuxero horietakoa zara zeu ere? Begira! Ez nintzen hortaz ohartu!

**ILARGI:** Bai, zera! Kuxkuxero ni! Beno, beno, nahikoa deu! Ingurua behatzen dakien horietakoa naiz, besterik ez. Aspertua naukazue, beti dena epaitzen.

*( ILARGIk egunkaria itxi, 2 eurokoa barran utzi eta kanpora ateratzeko keinua egingo du. Zutik jarriko da.)*

**OLATZ:** Epaitu? Ez horixe! Psikologo lana esan dut, baina ez! Agian hobe... konfesore, bai konfesore moduan egiten dugu lan, tabernariak. Aholkuak zenbaitetan... baina entzun bai, entzun primeran egiten dugu.

**ILARGI:** Orduan sekretu profesionala?

**OLATZ:** Zerena?

**ILARGI:** Nire ekintzena! Konplize bat behar dut!

**OLATZ:** Konplizea? Zeren konplizea?

**ILARGI:** Konplizea ez, konplizitatea esan nahi nuen.

**OLATZ:** Konplizitatea bai, nire bezeroentzat hoberena.

**ILARGI:** Bai, biktima ni naiz.

**OLATZ:** Zerena?

**ILARGI:** Zuk entzun. Konplizitatea behar dut, baiezkoa keinuak behar ditut, baietsi nire esanak.

**OLATZ:** Ahh, bai. *(Ixilunea. Elkarri begira geratuko dira)* Bai, bai horixe.

**ILARGI:** Entzun eta ez epaitu.

**OLATZ:** Beno, nire barneak epaituko du, baina kanpoan txiton.

**ILARGI:** Hori da, txiton. Zer nahi du esan horrek?

**OLATZ:** Bion artean geratuko dela, baina nigan... nigan eragina izango du, baita zugaran ere, nire aurpegiak, keinuak, pentsatzen dudana aurpegiaren antzemango duzu. Batzutan kafeterako kafe-errota martxan jarri behar izaten dut.

**ILARGI:** Kafe-errota?

**OLATZ:** Bai, ez entzuteko! Ez dakizu zenbat txorakeria entzun behar izaten ditudan, eta interes aurpegiaren ipini behar gainera. Nirekin konfesatu, bi agur Maria eta lasai joan zaitezke. Entzun eta lagunduko zaitut, tabernariaren sekretupean.

**ILARGI:** Hasiko naiz. Atso zaharra hil dut.

**OLATZ:** Ez dut ulertzen, zer esan nahi duzu?

**ILARGI:** Hil egin dudala.

**OLATZ:** Hitz egiteko modu bat, bai, bai. Gazteen hizkera.

**ILARGI:** Ezin nuen jasan. Maitatu behar nuela banekien, ona ez bazen ere maitatu behar nuen, bestela ez zuen indarririk izango. Tentsioa eragiten zidan, gehiegi ezagutzen ginen.

**OLATZ:** Ia, ia, ia.

**ILARGI:** Hil egin dut.

**OLATZ:** Benetan. Beldurra ematen ari didazu!

**ILARGI:** Beldurra niri ematen zidan. Bai, beldurra sentitzen nuen. Ez zuen ezer errespetatzen, baina jendeak gogoko zuen.

**OLATZ:** Agian, niretzat gehiegi. Jarraituko dugu hurrengoan.

*( OLATZ barraren beste aldera mugituko da)*

**ILARGI:** Atera kafe huts bat, mesedez.

*( OLATZ kafearekin Ilargirengana hurbilduko da. Honek eskutik heldu eta begirada zuzena botako dio, gauzak bere tokian utzi nahian)*

**ILARGI:** *( Xuxurlatuz)* Sekretu profesionala.

**OLATZ:** Ia, ia, jarraitu bai.

**ILARGI:** Zalantzak izan nituen. Zuk ez zenuen ezagutu, a ze zortea! Beno agian ezagutu zenuen? Berdin zaio, ez zaigu bere izena interesatzen. Fermin deituko diogu.

**OLATZ:** Ez zenuen beste biderik aurkitu?

**ILARGI:** Buelta asko eman nizkion, ez pentsa. Nire lehenengo aldia zen. Beti saiatu naiz irtenbide zentzudunak bilatzen, baina!

**OLATZ.** Baina...

**ILARGI:** Modu asko izan nituen buruan, ez pentsa. Batzuk oso luzeak ziren, hiltzoria aztertu beharreko kontua da, erabakia hartzea kostatu zitzaidan.

**OLATZ:** Holakorik !

**ILARGI:** Zuk denari baietz esan, nire alde zaude, ni biktima naiz ez ahaztu.

**OLATZ:** Bai, bai, konplizitatea. Jarraitu...

**ILARGI:** Hasieran luzatzea pentsatu nuen, zianuroa...

**OLATZ:** Janariari botaz?

**ILARGI:** Bai, horrelako zerbait... ez nintzen guztiz dokumentatu, zaila iruditu zitzaidan, hizkuntza oso zientifikoa (*Bere banketatik zutitu eta errezitatuz*) **“Zianuro multzoko**

**konposatu kimiko bat da, -C≡N bezala errepresentatutako anioi monobalentea.**

**Karbono atomo bat eta nitrogeno atomo baten lotura kimikoaz sortzen da. Alde batetik hidrogeno zianuroa dago, artsenikoarekin eta estrikninarekin batera pozoi**

**handienetakotzat jotzen dena. Hemoglobinak, biriketako oxigenoa organismoaren gainerako lekuetara garraiatzen duen proteinak, bere funtzioa betetzea eragotziz**

**jarduten du, asfixiak eragindako heriotza eraginez.”** Ez nuen batere garbi, pista asko utzi nezazkeen, gaizki egindako lan bat ez nuen nahi inondik inora. Lehen aldia bai, baina ona izan behar zuen, brillantea, bikaina.

**OLATZ:** Pista gehiegi agerian?

**ILARGI:** Ez zitzaidan modu egokia iruditu. Istripuan pentsatu nuen orduan. (*Ixilunea*)

**OLATZ:** Agian kafe-errota martxan jarri beharko nuke. Ez dakit gehiago entzun nahi dudan.

**ILARGI:** Ba, hurrengoan ez galdetu. Ez pentsa, kontatzen ari naizen hau niretzat erraza denik.

**OLATZ:** Ia, ia, ia.

**ILARGI:** Bai, denentzat ezaguna zen bere kotxeen zaletasuna, nabarmentzea gogoko zuen, ferrari gorria, bai ferrari gorrian istripua izateak ez zuen inor harrituko, etxerako bidean bihurtune arriskutsu batean kotxea irten eta....

**OLATZ:** Akabo.

**ILARGI:** Errazegia iruditu zitzaidan, begi bistan zegoen horrelako zerbait gertatzea... Ez, ez zitzaidan egokia iruditu.

**OLATZ:** Eta orduan?

**ILARGI:** Ba berekin bizitzen jarraitu behar izan nuen. Ez zuen inork ezer nabari. Denak beti bezala jarraitu zuen, baina nire buruak martxan jarraitzen zuen. Kontua da, haren arrakasta... biktima sentitzen nintzela.

**OLATZ:** Arrakasta?

**ILARGI:** Bera, edo ni. Aukeratu behar nuen, zuk zer aukeratuko zenuen?

**OLATZ:** Zu, zu dudarik gabe.

**ILARGI:** Bere buruaz beste egitea bururatu zitzaidan. Suizidiora bultzatu.

**OLATZ:** Zer nahi zenuen depresio batean sartu?

**ILARGI:** Begira, ez nuen bide hori jorratu. Beti pentsatu izan dut oso indartsua zela, bere buruan konfidantza handia zuela. Beste norbaitek egin beharko zuen, soka batekin bere garajea zintzilikatu...

**OLATZ:** Edota ferrariaren barnean asfixiatzen utzi. Karbono Monoxidoa, hil zaitzaikkeen etsai ixila.

**ILARGI:** Edo bere apartamentutik behera jaurti, hamargarren pisuan bizi ginen.

*(ixilunea)*

**OLATZ:** Eta ?

**ILARGI:** Hondamendi naturalekin ere pentsatu nuen, suteren bat, uholdea, tsunamia.

**OLATZ:** Bai, bai, buruari buelta gehiegi eman zenizkion, zer pentsatu zenuen jainkoa zinela?

**ILARGI:** Botereak neuk nituen, nahiz eta bereak izan garaipenak. Min eman zidan, bere falta ere sentituko nuen beldur nintzen, maite nuen, baina benetan gorroto nuen.

**OLATZ:** Baina... (*ahoa eskuarekin tapatuz, xuxurlatuz*) Hiltzea lortu zenuen?

**ILARGI:** Bai, lortu dut.

**OLATZ:** Nola?

**ILARGI:** Beldurra alde batera uztea erabaki nuen, buelta gehiegi eman nizkion, horretara ohitua nago, baina aldatu beharra neukan. Begien aurrean nuena deuseztatu behar nuen.

Oztopo bat zen niretzat, eta inguruko beste denentzat ere. Ezin nuen ezer berririk egin, beti bera zen tartean lasta bat zen.

**OLATZ:** Eta zer egin zenuen? Profesionalen sekretupean .

**ILARGI:** Ez dut inoiz ahaztuko. Aurrez-aurre egitea pentsatu nuen. Mikeli bere unea ematea erabaki nuen, Ferminek bere espazioa soberan izan zuen, Mikel aldiz beti bigarren planoan, begira baina isilik geratzen zen horietakoa zen. Haren izaera ezagutzeko ordua iritsi zen.

Makinaren aurrean jarri nintzen. Bai, aitonaren eskopetarekin izango zen. Bere aurrean azaldu zen, zentzu handirik gabe, bere tokia aurkitu nahi zuen. Arnasa hartu nuen, eta teklak sakatzen hasi nintzen. Ezin nuen sinistu, erabakia hartuta zegoen, Fermin eskopeta tiro batez Mikelek hilko zuen.

*( Errezitatuz)*

**“Asteazkenean 45urteko suhiak tiroz hil zuen 84urteko agurea. Alzheimer, zahartzaroko dementzia pairatzen zuen, bakarrik hiltzea jasanezina egiten zitzaiola adierazi dute....”**

**OLATZ:** Listo?

**ILARGI:** Bai, amaitu da. Izugarrizko askatasuna sentitu dut, ez nuen uste gai izango nintzanik, baina bai hil dut eta odol hotzarekin jokatzeko gai izan naiz. Nire pertsonaia hil dut, agur Fermin! Urtetan nire istorio guztietan agertu zara, gogokoa zara nire irakurleen artean baina ni zapalduz lortu duzu arrakasta, amaitu da, nire istorioek beste pertsonai batzuk behar dituzte. Lehen aldia izan, norbait hiltzea lortu dut, uste nuena baino atseginagoa izan da. Agur Fermin!

*(kafe-errota entzungo da, iluna)*